






A. LURRALDE GAIAK

1. LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA			
Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Lurralde eremua		Lemoak kokapen estrategikoa dauka bi bailaren arteko gurutzagunean eta bide nagusietatik gertu.	-
Lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak		Herriaren %4,3a artifizializaturik dago, hiri lurra eta sistema orokorrez okupaturik nagusiki. Aktiboak diren bi harrobi , harrobi ez aktibo bat, zabor-tegi bat eta lur naturalen betegarria bereizten dira.	-
Hiri egitura eta sarea		Arantxeta eta Txiriboketa bezalako zenbait gune ordenarik gabe hazi dira , inolako plangintza eta irizpide bateratzailerik gabe eta kontsolidatutako hiri guneak izateko beharrezkoak diren elementuak falta zaizkie.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Arantxeta eta Txiriboketan urbanizazio lanak garatu. 
Herriko eta inguruko berdeguneak		Gaur egun udalerriak ez du 5m ² ko estandar minimoarekin betetzen, horregatik, etorkizunean biztanleriaren beharrei erantzuteko, datozen aurreikuspenetan gune libreetara bideratutako azalera planteatu beharko da.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Dauden berdeguneak osatuko dituen berde-gune sistema orokor bat sortu. (Batez ere Tallereta, Arraibi, adibidez "ruina industrialak" Negarra. 
Herriko paisaia eta gune degradatuak		Harrobi inguruetan gune degradatuak aurkitzen dira, ingurumenean sortutako eragin bisuala dela eta birsortu beharrekoak. Arraibi da birsortze beharrik handien duen gunea.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Peña Lemonako harrobiaren ingurumen birsortzea bultzatu. ◆ Gaur egungo industri paisaiaren itxura birsortu eta hobetu.
Ondare arkitektonikoa eta kultur ondarea.		Herrian ez dago higiezinik Monumentu edo Multzo Monumental bezala katalogatua. Hala ere, zenbait higiezin Monumentu/ Multzo Monumental bezala izendatuak izateko proposatuak daude. Herrian badaude zenbait gune Presuntzio Arkeologiko bezala izendatuak.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ondare arkitektonikoa eta orokorrean nekazal guneekin erlazionaturiko eraikuntzak balioan jarri. (Elorria estelak, baserri zaharrena) 
Lurralde plangintza eta sektoriala		Igorreko Eremu Funtzionalako LZPak harrobien berreskurapenarekin lotutako ingurumen hobekuntza eremuak identifikatzen ditu. Herriko industri paisaia birsortu eta hobetu beharra aipatzen da. Lemoan intermodalitate nodo baten sorrera proposatzen du. Aurrekoarekin batera, Lemoarako oinezko eta bizikletarako bide trazatuak planteatzen dira. Bide sareari dagokionean Boroa-Lemoa konexioa eta Apariora doan Lemoako saihesbidea planteatzen da. Lemoako gunean N-240 eta BI-635en hiri-erlaldaketa planteatzen du ere. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarearen Lurralde Plan Sektorialak , abiadura handiko trenaren trazatua aurreikusten du Lemoako udalerrirako.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Plangintza sektorialean aurreikusitako bide, oinezko eta bizikleta azpiegiturak garatu, paisaiaren integrazioa eta hiri birgaitzea kontutan harturik. "Parking" bat trenbidearen aurrean. 










1. LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA








Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Hiri planeamendua		<p>Indarrean dagoen planeamenduaren helburu nagusiak hauek dira: Lemoan etxebizitza eskaintza bariatua eskaintzea, herriaren beharrei erantzuneko dien gune libre eta aisialdirako sistema baten bitartez bi egoitza-gune nagusiak progresiboki elkartu, erabiltzen ez diren industria lurren berrerabilpena edo aprobetxamendu egokiagoa sustatu eta industriaren funtzionamendu baldintzak aratu hauek ingurumenean eta inguruko etxebizitzetan duten eragina murrizteko.</p> <p>Lurzoru ez Urbanizagarriari dagokionean, Arauek udalerriko landa gune zabala babesteko neurriak ezartzen dituzte, lehen sektorerara bideratutako erabilerak bultzatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Dispersaturiko egoitza asentamenduak elkartu, Zerka gunearen egoitza hazkundera bultzatuz (Babes Ofizialeko etxebizitzak). ♦ Arraibin etxebizitza berrien hutsen sustapena bultzatu egokitu eta berritu. ♦ Gaur egungo etxebizitzetako kalitatea bultzatu: tasen murrizketa. ♦ Arraibiko auzoaren hiri berrikuntza bultzatu. ♦ Arratia eta Ibaizabaleko erribera guneak berreskuratu oinezkoentzako ibilbideak, bidegorriak eta aisialdirako guneak integratuz.
Iraunkortasun irizpideen txertaketa planeamenduan eta eraikuntzan		<p>Arau Subsidiarioetan garapen berrietan eta lehenengo eraikinak birgaitzerakoan energia kontsumoari eusteko helburu espezifikorik ez da ezarri, eraikuntzan eraginkortasun energetikoa sustatuko luketen arau edo neurri fiskalik ere ez dago.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Aurrezteko neurri aktibo edo pasiboaren bitartez garapen berrietan nahiz eraikuntzen berrikuntzetan energia kontsumoari eusteko helburu zehatzak ezarri.
Herritarren gogobetetze maila		<p>Parte-hartze prozesuaren ondoren eraikitako guneari (kaleak, gune publikoak, plazak, garbitasuna, itxura) emandako puntuaketa (6,3 puntu)</p>	



2. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Natura eta paisaia balioak		Ikuspuntu naturalistiko eta ekologiko batetik, landaredia eta fauna kantauri isurialdean ohikoak diren elementuez osaturik daude. Flora aldetik ez dago katalogaturiko espezierik eta fauna aldetik dauden espezie katalogatuak gutxi dira. Ez dago babestutako natur gunerik ezta interesa duten katalogoetan inbentariaturiko natur gunerik ere.	<ul style="list-style-type: none"> Lemoako natur baloreak, balore historikoak eta artistikoak herritarren artean zabaldu. EKINTZA PROPOSAMENA: Heritik zehar ibilbide gidatuak antolatu, bertako landaredia ezagutzeko.
Natur sistemak eta paisaiaren kontserbazio egoera.		Paisaiaren ikuspuntutik, natur ondarea oso aldatua dago meategi jarduerak dela eta. Hiri gunearen gaur egungo narriadura egoera murriztera bideratzen dira Lemoako natura babesteko ordenazio irizpideak.	
Naturgune babestuak		Lemoak ez dauka babestutako azalerarik baina Gorbea eta Urkiolako Natur Parkeak gertu daude herritik. Zuhaitz berezi bat dauka EAEko katalogoan txertatua, honen biziraupena mehatxatuta aurkitzen da. Arlanpeko amildegia kontserbaziorako interes gunea bezala izendatua dago, Urkiolako Natur Parkeak gertu dagoelako eta herrian meategi ustiapenera bideraturik ez dagoen mendi fronte bakarra delako.	<ul style="list-style-type: none"> Gune naturaleko babestutako azalera handitu.
Ingurune naturalaren kudeaketa		Eskolatik bideratzen dira herri mailan garatutako ingurumen kontserbazio eta hezkuntza jarduerak gehienak. Herri mailako Erabilera Publikoko Mendiek ez dute ordenazio berezirik.	<ul style="list-style-type: none"> Erabilera Publikoko Mendien Ordenazioa bultzatu. EKINTZA PROPOSAMENA: Zuhaitz autoktonoak landatu.
Herritarren gogobetetze-maila		Parte-hartze prozesuaren ondorioz udalerriko natur inguruneari emandako batez besteko puntuazioa (4,8 puntu 10etik)	
		Parte-hartze prozesuaren ondorioz natur guneen kantitateari emandako batez besteko puntuazioa (5,85 puntu 10etik)	
		Garraio publikoa gehiago erabili: (7,65 puntu 10etik)	



3. MUGIKORTASUNA			
Azpieremua	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Eguneroko mugikortasun eskariak		Azken urteetan lanerako mugikortasuna murriztu egin da . Bertakoak diren kanpo bidaiari dagokionean autobusaren erabilera nagusitzen da, horren ondoren autoa eta tren erabiltzen dira. Bertakoak ez diren desplazamenduen %100 motorizatuak dira, kotxearen erabilera nagusitzen da, autobusa eta trenaren aurretik.	
Mugikortasunaren kudeaketa eta plangintza		Egokia da herri eta eskualde mailako mugikortasunaren kudeaketa eta planifikazioa.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Finkatuta dagoen Oinezbusa zerbitzuaren erabilera bultzatu.
Garraio publikoa		Garraio publikoak garrantzi berezia dauka bai lemoatarrentzat eta baita kanpotik datozenentzat ere, hala ere, ez da nagusitzen den garraio bide mota.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Eskudunak diren erakundeetatik beharrezkoa den finantziazioa lortu geltoki intermodala egin ahal izateko eta honela Lemoa Arratiarekin komunikatzeko. ◆ Garraio publikoaren ordutegia lan egutegiarekin egokitu.
Oinezkoen eta bizikleta sareak		Oinezkoentzako sarea eta bere kalitatea nahiko ona da baina ez die herritar guztiei interesa duten puntuetara iristeko berme nahikoa eskaintzen. Gaur egun ez da bizikletentzako sare berezirik existitzen baina badaude udalaz gaidiko zenbait proiektu Lemoako herria barne hartzen dutenak. Herriak Irisgarritasun Plana dauka, bertan bide publikora, udal eraikuntzetara, garraiora eta udal web orrira iristeko neurriak ezartzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Bidegorri sare bat garatu eta baita bizikletarentzako gune bereziak ere. ◆ Bide Sare Alternatiboaren 8 ardatzaren garapena bultzatu (Arratiako Bidegorria) Oso garrantzitsua ◆ Herritar guztiei interesa duten puntuetara iristea bermatuko dien oinezko sarea garatu. ◆ Herriko Irisgarritasun Plana garatu.
Errepide sarea	-	Arauek N-240ko sarrera hobetu, garraio astuna murriztu eta nekazal bideak hobetzeko planteamendua egiten dute.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Arraibin BI-635 eta N-240en arteko elkargunea hobetu.
Lurralde loturak eta irisgarritasuna		Oinarrizko bide saretik herriak duen irisgarritasun maila oso altua da, horrekin batera, trenbide sarea eta autobus sareek ere konexio ona daukate. Landa ingurunean aurkitzen diren etxebizitza eta sakabanatutako jarduera gehienak asfaltatuta edo hormigoituta daude eta irisgarritasun egokia bermatzen dute.	
Aparkalekuak		Herrian dagoen aparkaleku kopurua nahikoa da eta ez da aparkaleku defizitrik hauteman, la Herradurako zonaldean soilik (hau ordea, erabiltzaileek egindako aparkalekuen erabilera desegokiagatik dela uste da).	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Aparkaleku gune berriak sortu (geltokiaren ondoan), benetako intermodalitatea bultzatu dadin.
Motorizazioa eta ibilgailuak		Lemoako parke mugikorra igotzen joan da urteik urtera, joera hau ez dator bat motorizatu gabeko garraioak eta garraio publikoaren erabilera bultzatu nahi duen portaerekin.	






LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK










3. MUGIKORTASUNA

Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Istripu tasa		Lemoan erregistraturiko istripuak murrizten joan dira, hala ere datua eskualdea, Bizkaia eta EAE-ko datuaren gainetik dago.	
Salgaiak		Garraio astunen aparkaleku arazorik eta karga eta deskarga merkantzien inguruko arazorik ez da hauteman herrian.	
Bide hezkuntza		Eskualde mailan Mugikortasun Astearen bitartez bide hezkuntza jarduerak bultzatzen dira eta herri mailan Oinezbusaren bitartez bide hezkuntza bultzatzen da ikasturte osoan zehar. Herritarren ustetan auto pribatuarekiko menpekotasun handia dago eta gune publikoaren okupazioa altua.	
Herritarren gogobetetze maila		Parte-hartze prozesuaren ondoren garraio publiko dotazioak eta zerbitzuen kalitateari emandako batez besteko puntuaketa (7,3 puntu 10etik)	
Ohiturak aldatzeko herritarren gogo maila		Garraio pribatua gutxiago erabili: (6,9 puntu 10etik)	




B. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA.








4. URA			
Azpieremuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Hornidura eta banaketa sarea		<p>Ur hornidura sarea kontsumorako egokia da eta dagokion arautegia betetzen du.</p> <p>Udal deposituaren kokapena dela eta presioa eta emaria bermatzeko bonbeoa egitea beharrezkoa da. Honek gain-kostu jarraitua dakar eta are gehiago handitu daiteke biztanleria igotzean eskaria ere handituko delako.</p> <p>%100 da estaldura maila.</p> <p>Ur distribuzio sarea galeren murrizketa handia hauteman da, hala ere, ez dago datu objektiborik hobekuntza hori zenbatekoa den kuantifikatzen laguntzen dutenak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Biztanleria handitu ezkeror gaur egungo bonbeo sistema mantenduta egongo litzatekeen gain-kostua aztertu. ◆ Kontabilizatu gabeko kontsumoak kontrolatu eta galerak murriztu.
Eskaria eta kontsumoa		<p>Sareko ur kontsumo guztiaren ezagupena eta kontrol maila ona da. Hala ere, sektoreka baxua da ur kontsumoaren ezagupen eta kontrol maila.</p> <p>Biztanleko eta eguneko etxeko ur kontsumoaren murrizketa etengabea hautematen da.</p> <p>Herriko tamaina kontutan harturik, guztira kontsumitzen den ur kopurua Udalsareako batez bestearen azpitik aurkitzen da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Herriko sektore ezberdinetako ur kontsumoen kontrola eta jarraipena egin. ◆ Udal ekipamendu ezberdinetako ur kontsumoa kontrolatu, jarraipena egin eta optimizatu. (Oso garrantzitsua)
Saneamendua eta arazketa		<p>Esate baterako etxebizitza guztien %100 saneamendu sarera konektatuak daude.</p> <p>Zenbait isurketa zuzen edo putzu septikoen bitartez egindako isurketak hauteman dira eta hauen kontrola eta hustea ezinezkoa da irisgarritasun arazoak direla eta.</p> <p>Saneamendu sareak bereziki akastunak dira landa guneeetan. Iturritxe eta Larrabeitiko hobekuntza proiektuak soilik geratzen dira gauzatzeko.</p> <p>Bolunburuko industrigunea ez dauka saneamendu sarera konexiorik baina sare orokorrerako konexioa aurreikusita dago.</p> <p>Saneamenduari dagokion arautegia betetzen da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Isurketa zuzenak edo putzu septikoetako isurketak kontrolatzeko neurriak hartu. ◆ Iturritxe eta Larrabeitiko auzoetan saneamendu sarearen hobekuntza proiektuak gauzatu. ◆ Bolunburuko industrigunea saneamendu sare orokorrera konektatu.
Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa		<p>Ez dago herri mailan uraren aurreztea bultzatzen duen inolako araudirik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Aurreztea bultzatzeko ur horniketa tarifa egokitu.
Sentsibilizazioa		<p>Sentsibilizazio jarduerak eskualde mailan garatzen dira batik bat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Herritarrek uraren inguruan sentsibilizatu 
Uraren kalitatea		<p>Arratia-A ur masaren egoera ekologikoa ona da. Kalitate helburuak betetzen ez dituzten adierazle bakarrak honakoak dira: arrain-komunitatea, potentzialtasuna</p>	

LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.
Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.
EKARPENAK



		daukaten zenbait espezieen eza eta beste batzuen sorrera eta presa txikien presentzia.	
Ohiturak aldatzeko herritarren gogo maila		<i>Ur kontsumoa murrizteko herritarren gogo maila altua da: (7,1 puntu 10etik)</i>	








5. HONDAKINAK			
Azpieroak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Hiri hondakinen sorrera		Biztanle eta eguneko sortutako hiri hondakinen kopurua murrizten ari dela ikusten da. Hala ere, ezinbestekoa da hondakinen murrizketan lan egiten jarraitzea Bizkaiko Hondakinen Prebentziorako Planaren helburuak bete ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> Sortutako hiri hondakinak murrizteko neurri berriak ezarri.
Gaikako bilketa		Errekuperatutako hondakin kopurua handitzen joan dela ikusten da baina azken urteetan atzerantzago joera nabarmendu da. Joera hau alderantzikatu behar da eta Udalsareako batz bestaren gaitetik dagoen hondakinen sailkapena indartu.	<ul style="list-style-type: none"> Joera alderantzikatu eta sailkatutako hondakinen portzentajea indartu.
Hiri hondakinen kideaketa eta tratamendua		Lemoan sortutako hondakinak Arratiako Udalen Mankomunitatetik kudeatzen dira. Oraindik frakzio organikoaren bilketa selektiboa ez ezarri izana negatiboki baloratzen da, baina Mankomunitate mailan zerbitzu hau ezartzeko aukerak aztertzen ari dira. Arratiako Mankomunitateko hondakinen Ordenantzak hiri hondakinak murrizteko pizgarririk ez du begiesten.	<ul style="list-style-type: none"> Arratia mailan hondakin organikoaren bilketa selektibo zerbitzua ezartzeko bideragarritasun azterketarekin aurrera egin. Arratiako hiri hondakinen bilketako Ordenantzan, hiri hondakinak murrizteko pizgarriak txertatu.
Sentsibilizazioa		Arratiako Udalen Mankomunitatetik eta bereziki Arratia 21etik, urtero sentsibilizazio ekintza anitzak antolatzen dira.	
Industriako hondakinak		Industria hondakinetatik balorizatutako portzentajea II Ingurumen Esparru Programak hondakin arriskutsuen %65 balorizatzeko helburutik oso azpitik dago.	
Nekazaritzako hondakinak	-		
Eraikuntzako hondakinak		Arratia mailan eraikuntzako hondakinak kudeatzeko guneak garatu eta prestatzeko beharra hauteman da.	<ul style="list-style-type: none"> Arratia mailan, eraikuntzako hondakinak kudeatzeko guneak garatu eta prestatu, gutxienez obra handietako hondakinak.
Bideen garbiketa		Bide garbiketa zerbitzua egokia eta nahikoa da, hala ere ez dago herri mailan bide garbiketa arautzen duen Ordenantzarik.	<ul style="list-style-type: none"> Bide garbiketa zerbitzuaren inguruko ordenantza bat egin.
Ohiturak aldatzeko herritarren gogo maila		Lemoako biztanleria hondakinak sailkatu eta bilketa selektiboko edukiontzietan botatzeko oso prest azaltzen da : (8,7 puntu 10etik).	

LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK







6. ENERGIA			
Azpiekemuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Egitura energetikoa		<p>Herriko egitura energetikoak, EAeko beste herri askorena bezala, erregai fosilen erabilera altua ekartzen du eta honek berotegi efektua duten gasen isurketara laguntzen du.</p> <p>Cementos Lemona fabrikak balorizazio prozesuak garatzen ditu hondakinak erregai bezala erabiliz eta honela botere kalorifiko handia lortzen da.</p> <p>Elektrizitate kontsumoari dagokionean industri sektorea nagusitzen da, horren ondoren zerbitzu sektorea eta etxebizitza sektorea. Herriko elektrizitate kontsumoari dagokionean urtean, elektrizitate kontsumoa murriztu dela ikusten da, gasaren kontsumoa handitu delako batik bat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Kanpoko dependentzia, erregai fosilen erabilpen maila eta hauekin erlazionaturiko berotegi efektua duten gasak murriztuko dituen eraginkortasun energetikoko eredu bat ezarri. ♦ Energi kontsumoaren ezagupen eta jarraipen maila udalerriko sektore ekonomiko guztietara zabaldu.
Energia berriztagarrien ekoizpena		<p>Instalatutako eguzki termiko azalera Lemoako polikiroldegia eta Pozuetako etxebizitzetako dagokio. Ez da fotovoltaikoa, eolikoa edo hidraulikoa bezalako beste energia iturri berriztagarriak erabiltzen.</p> <p>Energia berriztagarriak bultzatzeko udalerriko mailan ez dago arautegi fiskalik eta ezta kudeaketa ekimenik ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren sorrera bultzatu. <p>EKINTZA PROPOSAMENA: <i>Herri mailan energia berriztagarri sistemen ezarpena sustatu.</i> 🗣️</p>
Kontsumoa eta kudeaketa tokiko administrazioan		<p>Arratiako Udalen Mankomunitatea arduratzen da argiteri zerbitzuaren mantentzeaz eta egokitzapenez.</p> <p>Lemoako Udalak badu aholkulari energetiko bat era zentralizatu batean tokiko administrazioaren energi proiektu guztiak planifikatu eta kudeatzen dituenenak.</p> <p>Hilero (kanpo kontratazio baten bitartez), argiteri publikoa eta Udaletxearen instalazio eta zerbitzuen elektrizitate kontsumoak monitorizatzen dira, eta kontratu motaren arabera hautemandako inkongruentziak gainditzeko hobekuntza proposamenak planteatzen dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Energi kontsumoaren aurrezpen handiagoa lortu.
Udal ekipamenduen kontsumoa		<p>Udalerriko instalakuntzetako kontsumo egitura energetiko finalak energi elektrikoa, gas naturala eta gasolio C-a barneratzen ditu.</p> <p>Udal ekipamendu eta argiteri publikoaren kontsumo energetikoan gorakada bat hautematen da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Udal ekipamenduetan eta argiteri publikoaren eraginkortasun energetikoan aurrera egin.
Argiteria publikoaren kontsumoa		<p>Argiteri publikoaren kontsumoa Udalsarea 21eko batez bestearen oso gainetik aurkitzen da.</p> <p>Ingurumen Ordenantzak, energiaren erabilera eraginkorra bermatzeko, kanpoko argiteri instalakuntzek (publikoak nahiz pribatuak) bete behar dituen baldintzak arautzen ditu.</p>	

LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK



Udaleko ibilgailuen kontsumoa		Udaletxean 6 ibilgailu (furgonetak barne) daude eta guztiak ohiko erregaia erabiltzen dute. Gaur egungo ibilgailuak aldatzerako garaian ibilgailu mistoak edo elektrikoak sartzea bermatuko duen erosketa publiko berde politikarik ez da jarraitzen. EEE-ren eskutik herriko langileei zuzenduriko gidatze eraginkorraren inguruko inongo ikastarotik ez da antolatu.	Erosketa publikoko atala ikusi.
Sentsibilizazioa		Sentsibilizazio ekintzak eskualde mailan antolatzen dira nagusiki.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Energia aurreztu eta erabilera eraginkorra bultzatzeko sektore ezberdinak sentsibilizatu
Herriko azpiegitura energetikoak	-	Udalerrian, Fletxako zonaldean, distribuziorako zentral elektriko bat aurkitzen da. Bertatik herri mailako nahiz udalez gaindiko distribuzioa egiten da. Gas sarea nahiz eta hiri guneko zonaldeetan zabalduko zerbitzua den, ez da erregai bezala erabiltzen irisgarritasun aukera duten eraikuntza gehienek partetik.	
Eraikuntza		Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaz gain Udaletik eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera bultzatuko duten inongo ekimenik ez da aurreikusten. Eraginkortasun energetikoa duten etxebizitza kopurua (CADEM), ez da batere adierazgarria.	
Ohiturak aldatzeko herritarren gogo maila		Energi kontsumo ohitura aldatzeko prest dagoen lemoatarren kopurua altua da: (7,3 puntu 10etik	






LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK



7. INGURUMEN KALITATEA: Atmosfera, zarata eta lurzorua.

Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Airearen kalitatea		<p>Lemoako Udalak suspentsio partikulak neurtzen dituen bi ekipo mugikor ditu eta ekipo horiek osatzeko beharra dagoela kontsideratzen da.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sareak herrian badu kabina bat.</p> <p>34/2007 azaroaren 15eko Airearen kalitatea eta atmosfera babesteko legearekin betetzen da.</p> <p>Lemoako udalak badu kexak jasatzeko normalizaturiko sistema bat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Airearen kalitatea kontrolatzeko dauden kaptazio eta azterketa azpiegiturak osatu.
Parte-hartze prozesuaren ondorengo ekarpenak: BIZTANLERIA OROKORREAN		<p>Lemoako biztanleriaren gehiengoa airearen kalitatearekin arduratua dagoela azaltzen du, industri jarduerarekin erlazionaturik batik bat. <i>Hau da lemoatarrei gehien kezkatzen dien ingurumen gaia (9,8ko puntuaketa 10etik).</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrak informatu herri mailan garatzen diren industria prozesuen inguruan, baita hauek ingurumenean eragindako benetako ondorioen inguruan ere.
Kalitate akustikoa		<p>Zarata aldetik eragin handiena dutenak industria guneak eta herria zeharkatzen duten azpiegiturak dira (errepideak, trenbidea, harrobiak,...).</p> <p>Udaletxetik Cementos Lemona inguruan egindako neurketa puntualek zarata mailaren hobekuntza bat egon dela azaltzen dute, bertan egin diren hobekuntza teknologikoei esker eta balore horiek maila onargarriaren azpitik aurkitzen dira. Hala ere, beharrezkoa da puntu kritikoenetan, Arraibiko zonaldea, zarata mailak murrizteko ekintzen programazio bat egitea.</p> <p>Zarataren inguruko legediarekin betetzen da, 37/2003, irailaren 17ko zarata legea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Puntu kritikoenetan (Arraibiko gunea) zarata maila murrizteko beharrezkoak diren jarduerak aztertu, zehaztu eta programatu.
Kalitate akustikoaren kudeaketa		<p>Lemoako Udalak herriko zarata maila kontrolatzeko giza baliabide eta baliabide tekniko nahikoak ditu. Herrian Ingurumen Ordenantza bat dago eta Zarata legea garatzen duen 2007ko azaroaren 19ko Errege Dekretuak ezarritako zarata maila onargarriko limiteak baino kalitate helburu zorrotzagoak aurreikusten ditu.</p>	
Lurzoruen kutsadura		<p>Lurzorua potentzialki kutsatzen duten jarduerak dituzten zenbait enplazamendu identifikatzen dira (erreminten fabrikazioa, zementu ekoizpena, egur zerratzea eta arrabotaketa e.a.) hauek hartzen duten azalera herriko azalera osoaren %0,93 da. Azalera hau EAeko batez bestearen azpitik aurkitzen da (%1,11).</p>	



LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK








7. INGURUMEN KALITATEA: Atmosfera, zarata eta lurzorua.

Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
Lurzorua kalitatearen kudeaketa		Lurzorua Kalitatearen Aitorpenari dagokionean, Udalak, 2/2005 Legeak eta 9/2005 Errege Dekretuak ezarritako pausoak jarraitzen ditu. Gainera, jardura lizentzia ematerako garaian Udaletxeak dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzen dizkie potentzialki kutsagarriak diren jardurei.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Ikuskapen lanak areagotu lurzorua kalitatean eragin dezaketen hutsuneak hauteman ahal izateko. ♦ Lurraren kutsadura saihesteko ekintzak bultzatu.
Komunikazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa		<p>Lemoako Ingurumen Teknikariak airearen kalitatea eta zarata inguruan duen ezagupen maila altua da, bere prestakuntza eta ikastaro berezietan hartutako ezagupena dela eta.</p> <p>Udaletxeko beste langileei dagokionean eta biztanleriari orokorrean dagokionean, ez dira prestakuntza, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainarik garatu airearen kalitatea, zarata eta lurzorua inguruan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Udal langileei eta herritarrei orokorrean zuzendutako airea, zarata edo lurzorua inguruko prestakuntza, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak garatu.



8. EKONOMI JARDUEREN ARRISKUAREN KUDEAKETA

Azpieremuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehetasunezko jarduera arloak
Arrisku naturalen eta teknologikoen eragina		Akuiferoen zurgarritasun eta mendi hegaletako ezegonkortasun arriskuak identifikatu dira. Arrisku teknologikoei dagokionean, errepide nahiz trenbide azpiegitura garraioak azpimarratu daitezke. Boroako saihebidetako (hasera batean 2012 urterako aurreikusia baina gaur egun obrak geldituak daude), trafiko astunaren murrizketa eta honekin lotutako garraio arriskuen murrizketa ekarriko duela aurreikusten da.	
Arrisku naturalen eta teknologikoen kudeaketa		Lemoak ez dauka Larrialdietarako herri Planik.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Herrirako Larrialdietarako Plan bat egin.
Jarduera ekonomikoek ingurumenean duten eragina		Industria jarduerak dira herrian ingurumen aldetik eragin handiena dutenak. Zementu ekoizpena eta metalaren sektorea dira industria sektore nagusiak. NON dantzatokiaren inguruko espediente bat irekita dago, erabiltzaileek sortutako eragozpenak direla eta.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Ingurumen aldetik arrisku handien eragiten duten industria jardueren kontrola eta jarraipena indartu. ♦ Espedientaturik dauden jarduera ekonomikoek ingurumenaren kontrola eta jarraipena indartu. <p>EKINTZA PROPOSAMENA: Non-Stop Auzia argitu. </p>
Jarduera ekonomikoek kudeaketa		Udaletxeak jarduera klasifikatu zentsu dauka eta beraz ongi daki klasifikatuta eta edo ez klasifikatuta dauden espediente guztien tramitazio egoera zein den. Udal dependentzietan ez dute dagozkien auto-babeserako planik. Lemoako 6 enpresek dute ingurumen ziurtagarriren bat, Udalsarea 21eko batez bestearen gaitetik (4 enpresa).	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Herriko enpresen ingurumen portaera bultzatu.




LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.

EKARPENAK








9. EROSKETA PUBLIKO BERDEA ETA UDALAREN INGURUMEN KUDEAKETA

Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Erosketa eta kontratazio publiko berdea		Udal kudeaketan ez dago kontratazio eta erosketa publiko berdeko inolako prozedimendurik existitzen.	<ul style="list-style-type: none"> Erosketa eta kontratazio publiko berdeko plan bat diseinatu eta abian jarri. (Oso garrantzitsua) 🗣️
Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa		Udal dependentzi eta zerbitzuetan ez dago ziurtatutako kudeaketa sistemarik. Ingurumen gaien kudeaketarako ere ez dago estandarizaturiko prozedimendurik: baliabideen erabilera, hondakinen kudeaketa, e.a. Udaletxeko ingurumen gai ezberdinak kuantifikatzeko aldizkakotasuna (ura, energia, hondakinak, e.a.) fakturak iristen direnean egiten da.	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen kudeaketa sistemak ezarri ingurumenaren aldetik garrantzi handien duten udal instalakuntza-zerbitzuetan. (Oso garrantzitsua) 🗣️ Ingurumen gaiak eraginkor kudeatzeko prozedimentuak estandarizatu.
Prestakuntza, sentsibilizazioa eta komunikazioa.		Ingurumen Teknikaria da iraunkortasunarekin erlazionaturik dauden ikastaro ezberdinetara joaten dena. Ez da udal langileriarri zuzendutako iraunkortasunarekin erlazionaturiko inolako sentsibilizazio-informazio jarduerarik antolatzen.	<ul style="list-style-type: none"> Udaleko langileri osoari iraunkortasunaren inguruko prestakuntza eskaini.










10. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA






Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoaren ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Klima aldaketari egindako ekarpena		Udalerriko negutegi efektua duten isurketak kontabilizatuak daude , hala ere, ez dago informaziorik isurketa hauen bilakaeraren inguruko balorazio bat egiteko. Sektore difusuetako (garraioa, zerbitzuak, egoitzak, nekazaritza eta hondakinak) berotegi efektuko gasen maila eta bilakaeraren inguruko informaziorik ere ez dago, beraz ezin da balorazio bat egin hauen inguruan.	<ul style="list-style-type: none"> Berotegi Efektuko Inbentarioa kalkulatu eta murrizketa helburuak ezarri. Laster onartuko den Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Legea kontutan hartuta, Klima aldaketaren aurkako Plan bat gauzatu eta ezarri. Alkate eta Alkatesen arteko Ituna sinatu Europa mailan Energia Iraunkorraren inguruko Ekintza Plan bat egiteko konpromisoa hartuz.
Klima aldaketaren aurkako ekimen zehatzak		Lehen urtea da Lemoako Udalak BEG-ak kontabilizatu eta karbono aztarna kalkulatzeko duena. Orain arte, udal administrazioak ez du klima aldaketaren inguruko inolako ekimenik jarraitu. Ez du gai honen inguruko inolako planifikaziorik ere. Cementos Lemonak bere CO ₂ isurketak murriztu ditu hondakinen balorizazio energetikorako teknikak erabiliz horretarako (erregai fosilen ordez erregai alternatiboen erabilera: haragi irinak, egurra, plastikoak, e.a.) Aukerak daude BEG-en isurketak arintzeko karbono sarbегien kudeaketa egoki bat erabili ezker (adibidez Erabilera Publikoko Mendiak). Herri mailan Zuhaitz Eguna bezalako ekimenak eta Medikauto zerbitzuak BEG-en isurketen konpentsazioa dakarte eta CO ₂ isurketen murrizketa ere.	<ul style="list-style-type: none"> Sorbegien kudeaketa CO₂ isurketa xurgatzera bideratu, bereziki baso ustiapen kudeaketa praktiken bitartez.
Klima aldaketara egokitzea		Arriskuen eta klima aldaketaren ondorioz herriak duen urrakortasunaren inguruko ebaluaketarik ez du egin Lemoako Udaletxeak. Ez du klima aldaketak herrian eragin ditzaken ondorio potentzialen inguruan egokitutako inolako ekintza programarik ere. Arratia eta Ibaizabal ibaietako uholde arriskua areagotu daiteke klima aldaketaren ondorioz eurite maila aldatu ezker.	<ul style="list-style-type: none"> Klima aldaketarekin erlazonaturiko arriskuak eta herrian gaur egun eta etorkizunean arazo honek izan dezaken urrakortasun maila identifikatu, baita identifikatutako inpaktuen eragin nabarmenena jasango luketen ekonomi sektoreak eta natur sistemak ere. Egokitzapen programa baten bitartez klima aldaketaren inpaktu potentzialak murriztu edo gutxitzeko neurriak hartu.
Sentsibilizazioa		Herritarrei zuzenduriko klima aldaketaren inguruko jarduera berezirik ez da garatu. Ez da ezagutzen klima aldaketaren inguruan herritarren sentsibilizazio maila zein den.	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrak klima aldaketaren inguruan sentsibilizatu eta ko-arduratu. (Oso garrantzitsua) 









C. SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA.

11. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA			
Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Komunikazioa		Udalak bultzaturiko ekimenak, ekintzak, proiektuak eta ekitaldiak ezagutarazteko komunikazio kanalak ugariak eta nahikoak direna kontsideratzen da.	
Sentsibilizazioa		Urtean zehar gai ezberdinekin erlazioaturiko sentsibilizazio ekintzak anitzak dira: iraunkortasuna, genero ikuspegia, euskara, ea. Horretarako erabiltzen den euskarria landu beharreko gaiaren arabera aldatzen da: foiletoak, kartelak, aldizkariak, hitzaldiak, irratsaioak, prentsa, etxebizitzetara materialen banaketa, e.a. Ingurumen sentsibilizazio ekintzak Udaletxetik bultzatzen dira eta landu behar den gaiaren arabera Arratia 21 en laguntza dago.	
Parte-hartzea		Gaur egun ez dago Tokiko Agenda 21eko gaiak lantzeko herritarren parte-hartze organorik ezta foro aktiborik ere. Hala ere, Udal Korporazio berriak parte-hartze aukera ezberdinak bultzatzen ari da eta herritarren erantzun maila ona izaten ari da.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Politiketan eragin handiagoa lortzeko, parte-hartze formatu edo espazio berriak bultzatu. ◆ Eskolako Agenda 21a bultzatu. ◆ Lemoako herritarren parte-hartze Batzarra finkatu eta Aholku Kontseilu batetan transformatu. ◆ Iraunkortasun prozesuan giza eta ekonomi eragileen parte-hartzea sustatu.
Elkarte sareak		Gaur egun erregistraturiko elkarteak anitzak eta herriko ekimen ugari dinamizatzen dituzte. Hala ere, eskualdearekin alderatuz Lemoa elkarte sareari dagokionean (elkarte kopurua) ez dela bereziki herri aberatsa ondorioztatu dezakegu.	◆ Herriko elkarteak bultzatu eta lagundu. 
Herritarren gogobetetze maila		Herriko etorkizunarekin erlazioaturiko prozesuetan parte hartze aukeren inguruan dagoen gogo-betetze maila (7,5 puntukoa da 10etik)	
Ohiturak aldatzeko herritarren gogo maila		Lemoako biztanleria Tokiko Agenda 21eko edo Iraunkortasun Herri Batzarretan parte hartzeko prest dagoela adierazten du: (7,15 puntu 10etik)	



12. BARNE KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA			
Azpieremuak	Balazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Barne koordinazioa eta komunikazioa		Iraunkortasunarekin erlazionaturiko gaiak Ongizatea, berdintasuna eta ingurumen Batzordean lantzen dira. Ordezkarri politikoez gain area bakoitzeko teknikariek hartzen dute parte.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Udal organo bat finkatu, iraunkortasun prozesuaren planifikazioa, kontrola eta jarraipena egiteko. ◆ Departamenduen arteko koordinazioa eta lankidetzaz eskatzen duten iraunkortasun proiektuak bultzatu udal politiken zeharkakotasun maila handiagoa lortzeko.
Tokiko Agenda 21 kudeatzeko ereduaren azalpena		<p>Lemoako aurreko Tokiko Agenda 21 Planak gizarte gaiak baino hirigintza eta ingurumen gai gehiago barneratzen ditu.</p> <p>Positiboki baloratzen da Tokiko Agenda 21aren urteko jarraipenak finkatuta egotea (iraunkortasun adierazleak ebaluaketa eta kalkulua).</p> <p>Ekintza Planean txertatutako ekintzen urteko jarraipenean area edo zerbitzu ezberdinen inplikazio maila positiboki baloratzen da. Horri esker Tokiko Agenda 21aren inguruko informazio zentralizatua eta eguneratua lortu daiteke.</p> <p>Garatu beharreko jardueren programazioa oso prozesu hasiberria da oraindik eta eragileen gehiengoak ez du ondorioen azterketan oinarrituz programatzen.</p>	
Baliabide teknikoak		Udalak Ingurumen Teknikari bat dauka eta bera da Tokiko Agenda 21aren kudeaketa eta koordinazioaren arduradun teknikoa. Honako baldintza nahitaezkoa da prozesuaren garapen eraginkorra bermatzeko.	
Buruzagitza politikoa		Tokiko Agenda 21aren garapenean Alkatetzatik konpromiso zehatza dago eta udal arduradun guztien partetik ere parte-hartze aktiboa dago.	
Herritarren gogobetetze maila		<i>Udalaren kudeaketa orokorrari dagokionean herritarren gogobetetze maila ona da (7 puntu 10etik.)</i>	

D. GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA








13. BIZTANLERIA			
Azpiereak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Lurralde kokapena eta testuingurua		Lemoaren kokapena estrategikoa da, EAEko hiriburuekiko gertu dagoelako eta Eusko Trenbideak bezalako azpiegitura bertan duelako. Ezaugarri honek herriaren interes maila areagotzen du ekonomi jardueretarako lekua edo etxebizitza hazkundetarako leku bezala.	
Biztanleriaren bilakaera		Lemoako biztanleria %14 igo da azken 5 urteetan. Hazkunde honen %35 atzerritarrek ordezkutzen dute, beste %65 EAE eta espainiar estatutik datoz.	
Egitura demografikoa		Lemoan 65 urtetik gorako biztanleriak portzentaje garrantzitsua ordezkutzen du eta Arratiako bataz bestearen gainetik aurkitzen da.	
Mugimendu naturala		Lemoako hazkunde begetatiboa positiboa izan da baina esan behar da azken urteetan murrizten joan dela. Azken bi urteetan jaiotzeak gutxitu dira. 15 eta 24 urte bitarteko biztanleria 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren azpitik aurkitzen da eta honek jaiotze indizearen murrizketa erakar dezake joera hau aldatu dezaketean kanpo faktorerik ez egon ezker (biztanle sarrera berriak).	
Migrazio mugimendua		Lemoako kanpo migrazio saldoa beti positiboa izan da, 2007 urtean sarrera garrantzitsua hauteman zelarik. Guztia herrian egon den etxebizitza eskaintzaren gorakadari dagokiola esan daiteke. Biztanleria ere gaztetu da, bikote gazteak bizitzen jarri direlako. Lemoako biztanleriaren gehiengo EAEn jaio da. Gaur egun etorkinak Lemoako biztanleri osoaren % 7,53 ordezkutzen dute.	
Biztanleriaren banaketa		Biztanleriaren gehiena Arraibi, Intzuntza eta Elizondon bizi dira eta biztanleriaren beste %11 mendi hegaletan dispersaturiko etxebizitza eta hiri-nukleo txikietan bizi da.	



14. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA			
Azpieroak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
Eredu ekonomikoa		Lemoak industria sektore indartsua dauka herriko balore erantsi gordinari egiten dion ekarpena dela eta. Zerbitzu sektoreak ere garrantzia dauka, establezimendu kopuruak kontutan hartu ezker. Gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta tasa ezegonkorra hautematen da establezimendu kopuruaren sorreran.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Herria balorean jarri garapen ekonomikoa eta enpleguaren sustapeneko ekimen berriak bilatzeko. ◆ Arratiako beste udalerriekin batera lan egin garapen ekonomikoa eta enpleguaren sustapenean.
Jardura ekonomikoaren maila orokorra		Industria sektoreak aberastasun gehien sortzen duen sektorea da, balore erantsi gordinaren % 58,93 ordezkatzen du, horren ondoren industria sektorea %28,31 eta eraikuntza sektoreak %12,54 ordezkatzen dituzte.	
Ongizate ekonomikoa eta familia ongizate maila		Errenta pertsonala Eskualdea, Bizkaia eta EAEko batatz bestearen gainetik dago, Lemoako errenta pertsonalaren urteko hazkunde akumulatiboaren batatz besteko tasa ordea Arratiako tasaren azpitik aurkitzen da.	
Lehen sektorea			
Sektorearen egitura		Lehen sektorearen pisua Lemoan eskasa da. %0,22 ordezkatzen du herriko balio erantsi gordinen eta beherantzago joera hautematen da. Nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzatik datozen familia errentak industri sektorean sortutako diru-sarrerekiko osagarriak dira. Lehen sektorean lan egiten duen biztanleria %1,05 da, iraunkor mantendu den portzentajea da baina 2001 urteko ehunekoaren azpitik aurkitzen da %1,16.	
Bizitasuna eta etekin ekonomikoa			
Belaunaldien arteko dinamismoa		Oso maskulinizatua dagoen sektorea da, kontrataturiko afiliazioa kontutan hartu ezker, guztiak gizona gizona baitira.	
Bigarren sektorea			
Sektorearen egitura		Bi jardura ezberdinetan polarizatua dago Lemoako industri sektorea. Batetik, zementuaren ekoizpena bereizten da herrian enplegu kopuru garrantzitsua sortzen duen sektorea delarik, bestetik, metal sektorea azpimarragarria da, tailer metaliko eta material elektrikoekin.	
Bizitasuna eta etekin ekonomikoa		Herrian garrantzi berezia duen sektorea da. Balio erantsi gordinari egiten dion ekarpena 2000 urtea geroztik handitzen joan da. Sortutako enpleguari dagokionean, sektore honetan lan egiten duen biztanlerian murrizte txiki bat hauteman da. Industria jardueran zementuaren duen garrantziaz gain beste ekonomi	










14. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA

Azpieroak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
		jarduerak honekiko osagarriak ez direla esan behar da.	
Eraikuntza sektorea			
Sektorearen egitura		Azken urteetan eraikuntzara bideraturiko establezimendu kopuruaren handitzea hauteman da.	
Bizitasuna eta etekin ekonomikoa		2000 urtea geroztik sektore honek balio erantsi gordinari egiten dion ekarpena handitzen joan da. Sortutako enpleguari dagokionean, sektore honek biztanleriaren %7,13ari ematen dio enplegu, 2001 urtean hautemandako kopuruaren azpitik %8,99.	
Zerbitzu sektorea			
Sektorearen egitura		Azken urteetan zerbitzu sektorearen establezimendu kopurua handitzen joan da.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Herriko merkataritza jardura bultzatu. EKINTZA APROPOSAMENA: Merkataritza elkartea sortu.  ♦ Hirugarren sektorea herrian finkatzeko berarekin batera lan egin.
Bizitasuna eta etekin ekonomikoa		2000 urtea geroztik balio erantsi gordinari egindako ekarpena murrizten joan da. Sortutako enpleguari dagokionean, sektore honetan lan egiten duen biztanlerian gorakada bat hauteman da.	
Merkataritzaren azpisektorea			
Merkataritza azpisektorearen egitura eta bilakaera		Merkataritzara zuzendutako establezimendu kopurua egonkor mantendu da azken urteetan. Hala ere, bi establezimendu itxi dira eta elikadurako berri bat ireki da.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Ostalaritza eta merkataritza zerbitzuen profesionalizazioa eta kalitatea bultzatu.
Parte-hartze prozesuaren ondorengo ekarpenak: MERKATARIAK		Gaur egungo egoera ekonomikoa eta inguruko merkataritza zentro handiak dira Lemoako merkataritzarentzako mehatxurik handiena. Arraibiko auzoan merkataritza jardura mantendu nahi bada premiazko hiri-birsorkuntza behar du (argiteria hobetu, espaloiak, e.a.).	
Turismo eta ostalaritzaren azpisektorea			












14. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA








Azpiekemak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
Ostalaritza sektorearen egitura eta bilakaera		Ostalaritzara eta errestauraziora bideraturiko establezimenduak egonkor mantentzen dira, urteetan bariazio txikiak izan dituztelarik.	
Turismo subsektorearen egitura eta bilakaera		Lemoa, Arratiako beste udalerriekin alderatuz, ez da turismora bideratuta dagoen herria. Herriko ondarearen balorizazioa, eta ostalaritza eta merkataritza sektoreen profesionalizazioa eta kalitatea izan daitezke herrian turismoa bultzatzeko aukerak.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Herriko ondare kulturala eta naturala balorean jarri.
Lan merkatua			
Jardura eta okupazio tasa		Biztanleria aktiboak herriko biztanleriaren erdia baino zerbait gehiago ordezkutzen du. 2011ko urrian INEM-en erregistraturiko 211 pertsona daude.	
Langabezia		Orokorrean herriko langabezi tasa eskualdeko batz bestearen gainetik dago eta EAE eta Bizkaiko tasen azpitik.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Irteera gehiago duten jardura sektoreetara bideratu langabetuen orientazio, prestakuntza, kualifikazioaren hobekuntza eta lan merkatuan birziklatzeko jarduerak. ♦ Herriko langabetuak, lanean dauden pertsona eta enpresen artean bitartekari lanak egin eta kontratazio aukerak eskaini.
Kontratazioa		Kontratu kopuruaren ia erdia 33 eta 44 urte bitarteko pertsonari egin zaie, 45 urtetik gorako biztanleriaren kontratazioa %19,5 ordezkutzen du, beste guztia 20 eta 29 urte bitarteko biztanleriari egin zaio. Kontratuen gehiengoa gizonaekoei egin zaie eta emakumeen kontratazioa % 29,45 izan da.	
Lan eta prestakuntza politikak		Lemoak ez dauka Behargintza zerbitzurik gaur egun baina Landa Garapen Elkartetik eta Mankomunitateko Auzolan Programatik ikastaroak antolatzen dira epe luzeko langabetuei eta etorkinei zuzenduta. Aurreko urtearekin alderatuta murriztu egin da Lemoarako dagoen foru aurrekontua enplegua sustatzeko, hala ere, Arratia-Nerbioiko batz bestearen gainetik aurkitzen da.	
Herritarren gogobetetze maila		Gazteek herrian lana aurkitzeko duten aukeren inguruko gogobetetze maila oso baxua da (2 puntu 10etik).	











15. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

Azpiereak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
Arazo sozialak		<p>Nahitaezkoa da hirugarren adineko pertsona nahiz etorkinei sor diezaiaketen eskariei aurre egin ahal izateko aurreikuspen bat egitea.</p> <p>Arratian erregistraturiko tratu-txarren erdia Lemoako emakumeen kasuei dagokio. 1000 biztanleko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak handitu egin da 2004 urtea geroztik.</p> <p>Oinarrizko errenta eta Larraldietarako Laguntza soziala jasotzen duten familiak handitu egin dira. Gaur egungo krisi ekonomikoa da laguntza mota hauen igoeraren arrazoia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Inmigrazio Planak garatu.  ◆ Kulturartekotasuna landu Udal barneko ekintzetan. 
Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak		<p>Arratia mailan Mankomunitateak Gizarte Ekintzarako Departamendu bat dauka eta udalerrri bakoitzari Oinarrizko Gizarte zerbitzu eskaintza luzatzen zaio.</p> <p>Menpekotasuna daukaten hirugarren adineko pertsonen Egoitza Diman aurkitzen da. 60 leku ditu egoitzarako eta eguneko zentrorako 20 leku.</p>	
Udalaren gastu ekonomikoa gizarte zerbitzuak eta elkartasun ekintzetan		<p>Udaleko gastu ekonomikoa per capita igo egin da azken urteetan. Gizarte zerbitzuetako udal aurrekontu arrunta ere igo egin da. Kooperazio eta garapenera zuzendutako aurrekontua Arratiako batz bestearen gainetik aurkitzen da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Gizarte gaietara zuzendutako diru kopurua handitu. 
Parte-hartze prozesuaren ondorengo ekarpenak JUBILATU ELKARTEA		<p>Jubilatuaren egoitzan eskolako erabiltzaileen partetik sorturiko eragozpenak hauteman dira. Hala ere, ez dago kontsentsurik Jubilatuen Egoitza, pribatutasun gehiago izateko, beste leku batera eraman behar den hala ez planteatzerako garaian.</p>	
Berdintasuna			
Berdintasun politikak		<p>Udalak genero ezberdintasun gaietan duen kezka maila altua da eta berdintasunaren alde lan egiteko duen borondatea ere altua da Mankomunitate mailan garatzen diren ekintzetan kolaboratuz.</p> <p>Udalak lortu oraindik genero ikuspegia udaleko lan eremu ezberdinetan zeharkakoa izatea (kontratazioa, aurrekontuak, e.a.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Genero berdintasuneko Plan bat egin. (Lehentasuna izan beharko luke) 
Elkarbizitza			

15. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA





Azpieremuak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Herritarren segurtasuna		Trafiko istripu kopurua urtetik urtera murriztu egin da. Hala ere, gaur egungo istripu kopurua probintziaren gainera aurkitzen da. Delitu indizea handitu egin da eta gainera Bizkaiko bataz bestearen gainera aurkitzen da. Polizi kopurua ez da 1000 biztanleko agente bat izatera iristen, Bizkaiko bataz bestearen azpitik (1,52 agente 1000 biztanleko)	
Herritarren gogobetetze maila		Herrian sentitzen den segurtasunaren inguruko gogobetetze maila (6,7 puntukoa da 10etik.)	
Osasuna eta osasun ekipamenduak			
Osasuna eta osasun zerbitzuak		Gaur egungo osasun eskaintza nahikoa da eta udalerrriak dituen behar eta tamainara egokituta dago.	
Herritarren gogobetetze maila		Hala ere, osasun eta gizarte zerbitzuen inguruan herritarrek duten gogobetetze maila (4,21 puntukoa da 10etik.) Foroko partaideek osasun zerbitzu telematikoaren kontra daudela adierazten dute. 	
Telekomunikazioak eta IKTak			
Telekomunikazioak eta IKTtara irisgarritasuna		Udalerrriak Kz gunek dauka erabiltzaile kopuru garrantzitsu batekin. IKTak sustatzeko neurriak nahikoak eta erabiltzaileen beharretara egokituta daudela kontsideratzen da. Euskaltel ez da iristen herri guztira. 	

16. HEZKUNTZA, KULTURA, EUSKARA ETA KIROLAK

Azpiekemak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Hezkuntza			
Hezkuntza eskaintza		Herrian haur hezkuntza (0-2 urte) eta Lehen Hezkuntza eskaintza dago. Eredu linguistikoa D eredua da. Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiteko, ikasleak Igorren kokatzen den Institutura joaten dira. Eskolaz kanpo antolatzen diren jarduerak ugariak dira eta parte-hartze aldetik erantzun maila ere altua dela esan behar da.	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza mailan udal sail ezberdinen arteko koordinazioa bultzatu, zerbitzu eskaintza hobetuzko izateko. Hizkuntza eskola publiko baten sorrera bultzatu . 
Hezkuntza eskaera		Hazkundera hauteman da matrikulatutako ikasleen bilakaeran, 2005 urtean egon da Haur Hezkuntzan matrikulazio kopuru altuena.	
Hezkuntza eskaintza eta eskaeraren arteko balantzea		Orokorrean, herri eta eskualde mailan dagoen hezkuntza eskaintza gaur egungo eskariari erantzuten dio. Hala ere, DBH-ko ikasleei zuzendutako espazioa handitzeko aurreikuspena dago. Hori dela eta, une hauetan elkarrekin orain arte erabili izan dituzten gelak utzi beharko dituzte eta beste leku batera joan beharko dute.	<ul style="list-style-type: none"> Lemoako eskola handitu gaur egungo beharrei erantzuna emateko. 
Hezkuntza emaitzak eta herritarren hezkuntza maila	-	Biztanleriaren gehiengoak %44,26 Bigarren mailako ikasketak ditu, ikasketak profesionalak dituzten biztanleen kopurua %18,62 da eta Unibertsitate ikasketak dituztenak % 11,89.	
Parte-hartze prozesuaren emaitzak HAURRESKOLA		Ludoteka zerbitzuaz gain ez da 3 urtetik beherako ikasleei zuzendutako eskolaz kanpoko jarduerarik existitzen. Jolas guneen beharren inguruko proposamenak luzatzen dira.	
Herritarren gogobetetze maila		Guraso Elkarrekin hezkuntzaren kalitatea eta dauden eskolako ekipamenduen inguruko balorazioa (7koa da 10etik).	
Euskara			
Euskalduntze maila		Euskaraz dakitenen ehunekoa % 56,92 da, Lemoa delarik Arratia mailako udalerririk erdaldunena.	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera eta ikasketak handitzera zuzendutako neurri berriak hartu biztanleria eta udal langileen artean.







16. HEZKUNTZA, KULTURA, EUSKARA ETA KIROLAK

Azpiereemuak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Ekipamenduak		Lemoak euskararen dinamizazioa eta sustapenerako teknikari bat dauka. Euskarazko ikastaroak Medikuarien egoitza zaharrean antolatzen dira. Gaur egun 60 ikasle matrikulatuta daude programa ezberdinetan. Ikastaro hauetan emakume kopurua altuagoa da gizonezko kopurua baino, batik bat 30 urte arteko adin taldeei dagokionean. Matrikulazioen bilakaera kontutan hartu ezker azken urteetan igoera bat egon dela hauteman da.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ EBP-eko Plana garatu. ◆ Euskararen erabilera eta ezagueria bultzatu herritarren artean nahiz udaleko langileen artean.
Udal politikak		Euskarako udal zerbitzuetako baliabide eta programen bilakaera positiboa hauteman da, euskarara zuzendutako aurrekontuen partida igo egin delarik.	
Euskara udalaren jardueran		Orokorrean udal zerbitzuetan euskararen erabilpena nagusitzen da, hala ere, zenbait zerbitzuetan erdara da nagusitzen den hizkuntza dagokion teknikariak duen profil linguistiko baxua dela eta. Hala ere, udal langileria guztian euskararen aldeko joera positiboa dela ondorioztatu daiteke.	
Kultura			
Kultur ekipamenduak eta hauen erabilera maila		<p>Lemoak ez dauka Kultur Etxea bezalako eraikinik, hala ere baditu kultur taldeek eta Udalak erabilitako hainbat espazio kultur ekintzak garatzeko (eskolako gelak eta Elizondo). Ekipamendu hauek ez dute eskualde mailako izaerarik.</p> <p>Lemoak Udal liburutegia eta ludoteka bat dauka, Arraibiko gunean kokatua. Liburutegira iristeko arazoak hautematen dira, eskaileren bitartez bakarrik igo bait daiteke liburutegira. Liburutegiaren tamaina nahikoa da erabiltzaile kopuruari erantzuteko baina gaur egun dituen liburu eta aldizkari bolumenari erantzuteko txiki geratzen ari da.</p> <p>Udalerrian ez dago aldaketa meteorologikoetara egokituta eta babestuta dagoen eta kultura, aisialdi eta haurren jolasetara bideratutako inongo gune liberrik.</p> <p>Aisialdi eta kultur ekipamenduen erreforma eta egokitzapena herrian indartu beharreko gaia da, gaur egun daudenak eskasak bait dira.</p> <p>Udalak kontrataturiko kultur teknikariak Udaletxean bertan kokaturiko bulego bat dauka.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Erabilpen arauen bitartez kultur ekipamenduen aprobetxamendu handiagoa eta hobetagoa lortu. ◆ Liburutegirako irisgarritasun arazoak konpondu biztanleri osoari irisgarritasuna bermatuz. ◆ Liburutegiko bolumen bibliografikoen bir-kokapena aztertu egongo den espazio gabeziaren aurreikuspena dela eta. ◆ Helduei zuzendutako kultura eskaintza zabaldu. ◆ Kultur espazio berrien kokapenean aurrera egin. ◆ Aldaketa meteorologikoetara egokituta eta babestuta dagoen eta kultura, aisialdi eta haurren jolasetara bideratutako gune libre bat egokitu. ◆ Liburutegi eta ludotekaren berplanteamendua egin egungo



16. HEZKUNTZA, KULTURA, EUSKARA ETA KIROLAK

Azpi-eremuak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduerak
Kultur jarduerak eta parte-hartzea		<p>Lemoako kultur agenda oso ona da herriaren tamaina kontutan hartu ezker. Gaur egungo aurrekontuak herritarren beharrei erantzuten diola esan daiteke.</p> <p>Txikienei zuzendutako kultur jarduerak nagusitzen dira eta helduei zuzendutako kultur eskaintza ez da hain bariatua.</p> <p>Kultura Batzorde bat dago eta bertan partidu bakoitzeko zinegotzi bana eta zinegotzi bakoitzak gonbidaturiko bi pertsonak hartzen dute parte (hauek ez dute botorik ordea). Kultura Batzordearen bitartez kultura ekintzetan herritarren parte-hartze maila hobetuko dela aurreikusten da antolatutako guztia hautemandako beharrei erantzungo bait dio.</p>	beharrizanei eratzuteko. 🗣️
Herritarren kultura dinamika		Kultur elkarte maila ona da eta jarduera maila ere bai.	♦ Elkartegintza sustatu. 🗣️
Herritarren gogobetetze maila		<i>Kultura eta aisialdirako zerbitzuen hornidura eta kalitatearen inguruko gogobetetze maila (5,8 puntukoa da 10etik.)</i>	♦ Talde ezberdinen arabera egokitutako kultura eskaintza zabalagoa bultzatu eta zehaztu. 🗣️
Kirola			
Kirol ekipamenduak eta hauen erabilera		Kirol ekintzak garatu ahal izateko dauden plaza kopuru guztitik, 3.593, %16,98 soilik dago okupatuta.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Kirolaren Plan estrategiko bat egin: <ul style="list-style-type: none"> ○ Kirolaren eta instalakuntzen gaur egungo kudeaketa eredu birplanteatu. ○ Biztanleriaren artean ohitura osasuntsuak eta kirola egiteko ohitura bultzatu. ○ Kirola egiten duten pertsonen kopurua igo kirol eskaintza hobetuz. ○ Kirol instalakuntzetara sartzeko ordutegiak zabaldu. ♦ Kirol jarduerak egin ahal izateko espazioak egokitu eta berritu.




LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.

Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.









EKARPENAK



16. HEZKUNTZA, KULTURA, EUSKARA ETA KIROLAK

Azpieremuak	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jarduera arloak
Kudeaketa maila	-	Kanpoko enpresa bat arduratzen da Lemoako kirol ekipamendu nagusien kudeaketa eta mantentze osoaz.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Kirol ekipamenduen kudeaketa herriko elkartearen esku utzi. 
Kirol jarduerak eta parte-hartzea		Kirol eskaintzarik handiena Udal Polikiroldegitik kudeatzen da. Urte guztian zehar kirol eskaintza egonkorra da. Herri nahiz eskualde mailako kirol ekintzen antolakuntzan kirol elkartearen papera funtsezkoa da.	
Parte-hartze prozesuaren ondorengo ekarpenak KIROL ELKARTEAK		<i>Beraien jarduerak garatu ahal izateko hobetu daitezken zenbat gauza hauteman dira: Polikiroldegiko ordutegiak zabaldu, kirol jarduerak egin ahal izateko guneen egokitzapena eta berrikuntza, aurrekontuen egokitzapena, e.a.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Kirol Elkarteek beraien jarduerak garatu ahal izateko espazioak egokitu. ◆ Talde hauei zuzendutiko laguntzak handitu betiere hauen beharrak kontutan hartuta baina baita Udalak duen ahalmena kontutan hartuta ere.




17. ETXEBIZITZA			
Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardueren arloak
Etxebizitzaren ezaugarriak		Etxebizitza parke osoaren % 3,24 babes Ofizialekoa da eta Lemoan 1000 biztanleko dagoen BOE kopurua Bizkaia eta EAEko batz bestea baino zertxobait altuagoa da. Lemoako etxebizitzaren batz besteko dentsitatea Eskualdea, Bizkaia eta EAEko batz bestea baino askoz txikiagoa da. Herrian etxebizitza huts asko dago, eskualdea eta Bizkaiko batz bestea oso gaitetik. Aurrekoarekin lotuta familia etxebizitza nagusien % 5,28 egoera aurria, txarra edo eskasean aurkitzen dira (2001). Datua eskualdearen batz bestea gaitetik aurkitzen da %4,23.	
Etxebizitzaren birgaitzea		Lemoak ez dauka eraikuntzen birgaitzea arautzen duen inolako Ordenantzarik.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Gaur egungo etxebizitzaren egoitza-kalitatea hobetu: tasen murrizketa.
Higiezin eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza		Arauek 909 etxebizitza berrien eraikuntza aurreikusten dute eta horietatik 340 Babes Ofizialekoak izatea aurreikusten da. Etxebizitza eskaintza honen bitartez biztanleria gaztea mantendu nahi da eta jende berria erakarri. Lemoa da Arratia mailan babestutako Etxebizitza eskaera handiena duen udalerria, hurrengo udalerria Igorre da.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Dispersaturiko egoitza asentamenduak elkartu, Zerka inguruan etxebizitza eskaintza suspertuz (Babes ofizialeko etxebizitzak) ♦ Arraibin etxebizitza hutsen sustapena bultzatu, egokitu eta berritzu. 
Etxebizitza premiak eta eskaria		Arratiako Ekobarometro sozialaren arabera, etxebizitzara iristeko aukerak eta honen kalitatea da gogobetetze gutxien duen gaia. 25 eta 35 urte bitarteko gazteak dira etxebizitza eskatzen dutenen gehiengoa.	
Eskaintza-eskariaren arteko balantzea		Gaur egun etxebizitza eskaria eskaintza baino handiagoa da, ez bait dago biztanleriari egokitutako inolako eskaintza bariaturik (adina kontutan hartuta, diru-sartze maila...). Horregatik, Udaletxeak herriko errealitatera egokitutako etxebizitza politika baten garapena aurreikusten du. Lemoako etxebizitzaren prezioa EAEko batz bestea antzekoa da, hala ere Lemoakoa Amorebieta eta Galdakaoko etxebizitzaren prezioa baino zertxobait baxuagoa dela ikusten da.	
Herritarren gogobetetze maila		Biztanleek etxebizitzara iristeko duten ahalmen ekonomikoaren inguruko gogobetetze maila (4,3 puntukoa 10etik).	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Alokairu sozialaren aldeko apustua egin. 

LEMOAKO TOKIKO AGENDA 21. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA.
Herritarren parte-hartze foroa. 2012ko otsailak 17.
EKARPENAK



17. ETXEBIZITZA

Azpierenua	Balorazioa	Diagnostikoko ideia nagusiak	Lehentasunezko jardura arloak
		Etxebizitzaren kalitate mailaren inguruko gogobetetze maila (5,6 puntukoa da 10etik).	